

EUSKARALDIA BARAKALDO



Lagunekin,
Dendariekin,
Etxekoekin,
Euskaraz egin

Behatxulotik ibiltzen gara
Sarritan gora begira,
Mundu eder bat ikusten dugu
sortzen duena intriga;
baina atearen beste aldera
salto egitean, biba!
Hizkuntza ez baita soilik
hizkuntza,
mundu ikuskerak dira!

Euskaraldiak ziprztinduko
du kolorez Barakaldo.
Ahoak bizi,
belarriak prest!
Euskara kalean dago!
Mingaina dantzan jarri orduko
lotsa guztiak akabo!
Egin dezagun **gehiagorekin**,
Gehiagotan ta **gehiago**.

Barakaldon ni,
Barakaldon zu,

Barakaldon gu,
Hamaika modu

Labe Garaiak ta garabiak
Nortasuna,
Euskararen aldeko maniak
80ko hamarkada,
Gurasoak eredu amesten
Baraka euskalduna
Oztopoak oztopo
Jarrai dezagun aurrera

Folka, rapa, dantza eskola
Gure hizkuntza bai gustora
Non ta nola ez du axola
Zu ta gu ta
aldapan Gora,
Irriak irrikitan
Jolasaren heziketan
Jendea berriketan
Herriko karriketan

Barakaldon ni,
Barakaldon zu,
Barakaldon gu,
Hamaika modu
(x3)



Bilatu abestian hitz hauen sinonimoak:

- Adiskideekin:
- Askotan:
- Polit, dotore:
- Ikusmoldeak:
- Erne:
- Karrikan:
- Mihia:
- Asko:
- Eragozpenak:
- Hizketan, solasean, kontu-kantari: